



## **OHIKO GALDERAK**

### **ENPLEGUAREN ALDEKO VI. GIZARTE AKORDIOAREN NEURRI BERRIEI BURUZ**

#### ***I. Aldi Baterako Enplegu Erregulazio Espedienteen (ABEEE) LUZAPENA***

1. Automatikoki luzatuko dira 2021eko urriaren 31ra arte indarrean dauden ABEEE guztiak?
2. Eskatu ahal izango da ezinbesteko ABEEE berririk urrian? Aurreko araubidea aplikatuko zaie?
3. COVID-19aren ondoriozko ABEEEak luzatu al daitezke 2022ko otsailaren 28ra arte? Zer baldintza bete behar dira?
4. Eskatu behar al da ekonomia, teknika, antolaketa eta ekoizpeneko arrazoiek eragindako ABEEEen luzapena? Noiz arte luzatzen dira?
5. Eska al daiteke eragozpenek edo mugek eragindako beste ABEEE bat?
6. Indarrean dauden ezinbesteko arrazoiek eragindako ABEEEak bihurtu al daitezke ekonomia, teknika, antolaketa eta ekoizpeneko arrazoiek eragindako ABEEE?
7. Alderdiek itundutako epea amaitutakoan, luzatu al daitezke ekonomia, teknika, antolaketa eta ekoizpeneko arrazoiek eragindako ABEEEak?
8. Ekonomia, teknika, antolaketa eta ekoizpeneko arrazoiek eragindako ABEEEek eskubidea al dute Gizarte Segurantzako kuotetatik salbuetsita egoteko?

#### ***II. KOTIZAZIOAREN ARLOKO EZOHIKO NEURRIAK: PRESTAKUNTZA- EKINTZAK***

9. Zer enpresak egin behar dituzte prestakuntza-ekintzak ABEEEtan Gizarte Segurantzako kotizazioko salbuespenak lortzeko? Zer ondorio ditu prestakuntza-ekintzak egiteak?
10. Aurreikusita al dago prestakuntza-ekintzak finantzatzeko kreditua handitzea?
11. Nola egin behar dira prestakuntza-ekintzak?
12. Zer gertatzen da prestakuntzaren baldintzapeko salbuespenak aplikatzen badira eta ekintzak garatzen ez badira? Eta enpresak ekintzak eskura jarri baditu eta egin ez badira?



### **III. KOTIZAZIOAREN ARLOKO EZOHIKO NEURRIAK: SALBUESPENAK**

13. Oraindik ere Gizarte Segurantzatik salbuetsita al daude martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan oinarritutako ezinbesteko ABEEEak? Eta espediente horietatik ekonomia, teknika, antolaketa eta ekoizpeneko arazoiek eragindako ABEEEtara igaro diren enpresentzat?

14. Eska al daiteke arau hau indarrean dagoen bitartean balio-katea osatzen duen edo zeharka mendekoa den enpresaren kalifikazioa, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen ondorioz estaldura-tasa handia eta jardueraren berreskuratze-tasa txikia duten sektoreetako enpresentzat?

15. Zeintzuk dira 12. galderan deskribatutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei aplikatu beharreko salbuespenen zenbatekoak?

16. Ba al dago betekizun gehigarriak prestakuntza-ekintzei lotutako salbuespen-ehunekoak aplikatzen dituzten enpresentzat?

17. Zein da jarduera eragozteagatik edo jarduera normalizatua mugatzeagatik ABEEEen salbuespenen zenbatekoa?

18. Zer prozedura erabili behar da beren jarduera ekonomikoa eragotzita edo mugatuta ikusten duten enpresek egoera horiei dagozkien Gizarte Segurantzako kuotetatik salbuesteko portzentajeak eskura ditzaten?

### **IV. APARTEKO NEURRIAK LANGABEZIAGATIKO BABESAREN ARLOAN**

19. Zein dira Enpleguaren Aldeko VI. Gizarte Akordioaren programan langileak babesteko aurreikusitako neurriak?

20. Ba al dago alderik ABEEEan dauden langileen langabezia-babesean, ABEEE hori zein motatakoa den kontuan hartuta (ezinbesteko arazoiek eragindakoa, ekonomia-teknika- antolaketa-ekoizpeneko arazoiek eragindakoa, berragertzearen ondoriozkoa, mugek edo eragozpenek eragindakoa)?

21. Zer neurri espezifiko aurreikusten dira aldizkako kontratu finkoa duten pertsonentzat edo data jakin batzuetan errepikatzen diren lan finko eta aldizkakoak egiten dituztenentzat?

22.- Nork jaso dezake aparteko prestazioa? Bateragarria al da besteren konturako lanaldi partzialeko lanarekin?

23. Zer zenbateko aurreikusten da?

24. Zenbat iraungo du? Eten daiteke?

25. Zer izapide eskatzen dira?

26. "Kontagailua zeroan" mantentzen al da? Zertan datza?



## **V. NEURRI OSAGARRIAK**

27. Luzatzen al dira ABEEEei aplikatu beharreko neurri osagarriak?

28. Enpleguari eusteko konpromisoa jasotzen duen 6 hilabeteko beste aldi bat al dago?

## **VI. PALMAKO SUMENDIAREN ERUPZIOAK ERAGINDAKO ENPRESENTZAKO NEURRIAK**

29. Zer neurri aurreikusten dira Cumbre Viejako sumendiaren erupzioak eragindako enpresentzat? Zer baldintza bete behar dira?

30. Zer kotizazio-neurri aplikatuko zaizkie Cumbre Viejako sumendiaren erupzioari lotutako ABEEEei?

31. Langabeziagatiko babesaren arloan, zein aparteko neurri aplikatuko zaizkie Cumbre Viejako sumendiaren erupzioari lotutako ABEEEei?



## **I. ERTEEN LUZAPENA**

### **1. Automatikoki luzatuko dira 2021eko urriaren 31ra arte indarrean dauden ABEEE guztiak?**

Maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren I. tituluan eta lehen xedapen gehigarrian jasotako aurreikuspenak 2021eko urriaren 31ra arte aplikatuko dira, 2021eko irailaren 30ean indarrean zeuden aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei dagokienez.

Beraz, automatikoki luzatzen dira, 2021eko urriaren 31ra arte, edo baiespen-ebazpenetan edo enpresa-komunikazioetan (urriaren 31 baino lehenagokoa bada) jasotako baldintzetatik ondorioztatzen den egunera arte, 2021eko irailaren 30ean indarrean dauden ABEEE horiek, ezinbesteko arrazoiengatik edo ekonomia, teknika, antolaketa eta ekoizpeneko arrazoiengatik izan.

ABEEE horiei 2021eko irailean egokitu zitzaizkien baldintza berberak aplikatuko zaizkie.

### **2. Eskatu ahal izango da ezinbesteko ABEEE berririk urrian? Aurreko araubidea aplikatuko zaie?**

Bai. Maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren araubidea urriaren 1etik 31ra bitartean onartzen diren ABEEEei ere aplikatzen zaie, 2021eko irailean egokituko litzaizkiekeen kasu berberetan eta baldintza eta salbuespen berberekin, hurrenez hurren espediente mota bakoitzerako dagokionaren arabera eta maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuan ezarritako moduan eta baldintzetan.

Azken horien izapidetzea maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuan xedatutakoaren arabera egingo da. Aurrekoari kalterik egin gabe, laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuko zaie, hau da, hura aplikatzen hasten denean ABEEEn sartutako langileen zerrenda aurkeztu beharra, kotizazioaren arloko ezohiko neurriak eta langabezia-babesaren arloko ezohiko neurriak eskuratzeko baldintza gisa.

### **3. COVID-19aren ondoriozko ABEEEak luzatu al daitezke 2022ko otsailaren 28ra arte? Zer baldintza bete behar dira?**

Bai. 2021eko irailaren 30ean pandemiaren eraginez indarrean zeuden ABEEEak 2022ko otsailaren 28ra arte luzatu ahal izateko, enpresa edo erakunde titularrak eskaera bat aurkeztu beharko du, 2021eko urriaren 1etik 15era bitartean, espedientea baimendu edo izapidetu zuen lan-agintaritzaren aurrean, eta hura onesteko ebazpena eman beharko da.



Azken hori lortzeko, eskaerarekin batera langile bakoitzaren 2021eko uztailean, abuztuan eta irailean etendako edo murriztutako lanegunen edo orduen zerrenda aurkeztu beharko da, lantoki bakoitzaren arabera behar bezala identifikatuta, baita langileen legezko ordezkariaren txostena ere, ekonomia, teknika, antolaketa eta ekoizpeneko arrazoiengatik espedienteen kasuan. Txosten horretan, langileek adierazi ahal izango dute luzapenaren aurkezpenari buruzko informazioa jaso dutela eta egokitzat jotzen duten beste edozein gai adierazi ahal izango dute.

Ondorioz:

- Eskaera eta dokumentazio hori ezarritako epearen barruan aurkezten ez badira, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea amaitutzat emango da, eta 2021eko azaroaren 1etik aurrera ez da aplikatuko.
- Enpresak eskabidea aurkeztu eta hamar egun baliouduneko epean, lan-agintaritzak ebazpena eman beharko du. Ebazpen hori baieslea izango da, eta espedientea 2022ko otsailaren 28ra arte luzatuko da, betiere eskatutako dokumentazioa aurkeztu bada. Beraz, dokumentazio hori benetan aurkeztea baino ez da baloratuko.
- Esanbidezko ebazpenik ez badago, luzapen-eskaera onartutzat joko da.

Lan-agintaritzak, dagokion ebazpena emateko aukera alde batera utzi gabe, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzara bidaliko du espedientea, izan daitezkeen ondorioetarako.

Aurreko guztia alde batera utzi gabe, laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuko zaie; bertan zehazten denez, kotizazioaren arloko ezohiko neurriak eta langabeziagatik babesaren arloko ezohiko neurriak eskuratu ahal izateko, beharrezkoa izango da 2021eko irailaren 30ean ABEEEn zeuden eta luzapenean ere espediente horretan jarraituko duten langileen zerrenda aurkeztea.

#### ***4. Eskatu behar al da ekonomia, teknika, antolaketa eta ekoizpeneko arrazoiak eragindako ABEEEn luzapena? Noiz arte luzatzen dira?***

2021eko irailaren 30ean indarrean zegoen COVIDaren ondoriozko ekonomia-teknika-antolaketa-ekoizpen arrazoiak eragindako ABEEi dagokionez (enpresaren EJSN edozein dela ere), luzapen-eskaera aurkeztu beharko da, betiere 2021eko azaroaren 1etik 2022ko otsailaren 28ra bitartean aplikatu nahi bada.

2021eko irailaren 30ean indarrean zegoen COVIDaren ondoriozko ekonomia-teknika-antolaketa-ekoizpen arrazoiak eragindako ABEEi dagokionez (enpresaren EJSN edozein izanik ere), luzapen-eskaera hori aurkezten ez bada, 2021eko urriaren 31n indargabetutzat joko da.

Lan Agintaritzaren ebazpenak, aurreikusitako baldintzak betetzen badira, espedientea luzatuko du, bertan aurreikusitako baldintzetan, baina inoiz ez 2022ko otsailaren 28a baino beranduago.

Hala, enpresaren eta langileen ordezkarien arteko akordioa dela eta, ekonomia-teknika-antolaketa-ekoizpen arrazoiek eragindako ABEEEaren amaiera-data laburragoa aurreikusten bada, enpresak data horretara arte aplikatzeko hartutako konpromisoa dela ulertuko da. Hala ere, arauak ez duenez akordioaren bidezko luzapenik onartzen indarrean dagoen bitartean, luzapena 2022ko otsailaren 28ko amaiera-datarekin baimentzen da kasu guztietan.

Halaber, laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuko zaie: kotizazioaren arloko ezohiko neurriak eta langabeziagatiko babesaren arloko ezohiko neurriak eskuratu ahal izateko, beharrezkoa izango da 2021eko irailaren 30ean ABEEEan zeuden eta luzapenean ere espediente horretan jarraituko duten langileen zerrenda aurkeztea.

##### **5. *Eska al daiteke eragozpenek edo mugek eragindako beste ABEEE bat?***

Bai. Agintaritza eskudunek hartzen dituzten murrizketa eta euspen sanitarioko neurri berrien eraginpeko enpresek eta erakundeek enplegua erregulatzeko espediente bat eskatu ahal izango dute, euren jarduera normalizatua oztopatzen edo mugatzen bada, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan jasotako moduan, baimendutako erregulazio-espedienteak modulatu edo eraldatzeari buruz aurreikusitakoa aplikatu behar zaienean izan ezik.

Enpresa eta erakunde horiek irailaren 28ko 18/2021 Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluan espediente mota bakoitzerako aurreikusitako salbuespen-ehunekoen onuradun izan daitezke, eraginpeko lantokietako kotizazio-kontuko kodeetan alta emanda dauden atxikitako langileei dagokienez, betiere arau honetan jasotako gainerako baldintzak betetzen badituzte.

Kotizazioaren eta langabezia-prestazioen arloko ezohiko neurriak aplikatzeko, ezinbesteko baldintza izango da ezarritako baldintzak eta prozedurak betetzea.

Hala ere, kontuan hartu behar da maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren araubidea aplikatzen jarraitzen zaiela urriaren 1etik 31ra bitartean onartzen diren ABEEEei ere (ikus 2. galdera).

Aurrekoari kalterik egin gabe, laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuko zaie, hau da, aplikatzen hasteko unean ABEEEan dauden langileen zerrenda behar dela kotizazioaren arloko ezohiko neurriak eta langabeziagatiko babesaren arloko ezohiko neurriak hartzeko baldintza gisa.



**6. Indarrean dauden ezinbesteko arrazoiek eragindako ABEEEak bihurtu al daitezke ekonomia, teknika, antolaketa eta ekoizpeneko arrazoiek eragindako ABEEE?**

Bai, ekonomia, teknika, antolaketa eta ekoizpeneko arrazoiek eragindako ABEEE bat izapidetu daiteke ezinbesteko arrazoiek eragindako ABEEE bat indarrean dagoen bitartean; eta ekonomia, teknika, antolaketa eta ekoizpeneko arrazoiek eragindako ABEEEa ezinbesteko arrazoiek eragindako ERTE bat amaitu ondoren hasten bada, haren ondorio-data haren amaiera-datara atzeratuko da.

**7. Alderdiak itundutako epea amaitutakoan, luzatu al daitezke ekonomia, teknika, antolaketa eta ekoizpeneko arrazoiek eragindako ABEEEak?**

Ez, trantsizioko ABEEE izapidetzea bakarrik egin daiteke, aurreko galderan adierazitakoaren arabera.

Hala ere, maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren araubidea aplikatzen zaie, halaber, urriaren 1etik 31ra bitartean jakinarazten diren ekonomia, teknika, antolaketa eta ekoizpeneko arrazoiek eragindako ABEEEei; beraz, epe horretan, espediente horiek luzatu ahal izango dira ABEEEren azken jakinarazpena jasotzen duen lan-agintaritzaren aurrean, betiere kontsulta-aldian akordio bat lortzen bada.

Luzapena urriaren 29ko 1483/2012 Errege Dekretuan ezarritako prozeduraren arabera izapidetu beharko da, eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 23. artikuluan jasotako berezitasunekin.

**8. Ekonomia, teknika, antolaketa eta ekoizpeneko arrazoiek eragindako ABEEEek eskubidea al dute Gizarte Segurantzako kuotetatik salbuetsita egoteko?**

Bai, Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluan adierazitako ezinbesteko arrazoiek eragindako ABEEEtik igarotzen direnen kasuan (ikus 12. galdera).



## **II. KOTIZAZIOAREN ARLOKO EZOHIKO NEURRIAK: PRESTAKUNTZA-EKINTZAK**

### **9. Zer enpresak egin behar dituzte prestakuntza-ekintzak ABEEEtan Gizarte Segurantzako kotizazioko salbuespenak lortzeko? Zer ondorio ditu prestakuntza-ekintzak egiteak?**

Ez dago ABEEEak eragindako pertsonen aldeko prestakuntza-ekintzak garatzeko betebeharririk, baina bai Gizarte Segurantzako kuotetatik salbuesteko portzentajeetan onura, halakorik eginez gero.

Onura hori, irailaren 28ko 18/2021 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako enpresa hauei aplika dakieke: ABEEE luzatu duten enpresei, eta 2. artikuluan mugatutako ABEEE dutenei, baldin eta ABEEEk eragindako pertsona bakoitzarentzako prestakuntza-ekintzak egiten badituzte 2021eko azaroaren 1etik 2022ko otsailaren 28ra bitartean.

Prestakuntza-ekintzak garatzearen ondorioz, ezohiko onurak handituko dira kotizazioaren arloan (ikus 15. galdera).

### **10. Aurreikusita al dago prestakuntza-ekintzak finantzatzeko kreditua handitzea?**

Bai. Programatutako prestakuntzaren esparruan, ABEEEak eragindako pertsonak prestatzen dituzten enpresek kreditua handitzeko eskubidea izango dute, enpresaren tamainaren arabera, ondoren adierazten den zenbatekoa duten ekintzak finantzatzeko:

- a) 1-9 langile: 425 euro pertsona bakoitzeko.
- b) 10-49 langile: 400 euro pertsona bakoitzeko.
- c) 50 pertsona edo gehiago: 320 euro pertsona bakoitzeko.

### **11. Nola egin behar dira prestakuntza-ekintzak?**

Aipatutako prestakuntza-ekintzen helburua aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpeko langileen gaitasun profesionalak eta enplegarritasuna hobetzea izango da.

Ekintza horien bitartez, lehentasuna emango zaio enpresen eta langileen benetako prestakuntza-premiei erantzuteko prestakuntza-ekintzen garapenari, konpetentzia digitalak eskuratzeari lotutakoak barne, bai eta langileak birkualifikatzeko aukera ematen dutenei ere, enpresan garatutako jarduerarekin zuzeneko loturarik ez izan arren.

Prestakuntza-ekintzak **Lan-arloko Enplegurako Lanbide Heziketaren Sistema arautzen duen irailaren 9ko 30/2015 Legean** aurreikusitako edozein prestakuntza motaren bidez garatuko dira, arau horretan ezarritako



betekizunekin eta prozedurekin bat etorriz. Hau da, programatutako edo hobaridun prestakuntzaren eta diruz lagundutako prestakuntzaren eremuan garatu ahal izango dira.

Prestakuntza-ekintzak gauzatzeko **epea** 2022ko ekainaren 30ean amaituko da.

Gutxieneko prestakuntza-orduen **kopurua** enpresaren tamainaren arabera ezartzen da:

A) 1-9 langile: ez dago gutxienezkorik.

B) 10-49 langile: 30 ordu.

B) 50 ordu edo gehiago: 40 ordu.

Prestakuntza-ekintza horiek lanaldiaren murrizketa aplikatzen den bitartean, edo kontratua eteten den bitartean –aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten baitan– edo lan-denboran garatu beharko dira. Nolanahi ere, legez ezarritako atsedenaldiak eta lana, bizitza pertsonala eta familia uztartzeko eskubidea errespetatu beharko dira.

**Langileen legezko ordezkariari, halakorik badago, proposatutako prestakuntza-ekintzen berri eman beharko zaio.**

***12. Zer gertatzen da prestakuntzaren baldintzapeko salbuespenak aplikatzen badira eta ekintzak garatzen ez badira? Eta enpresak ekintzak eskura jarri baditu eta egin ez badira?***

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak egiaztatuko du prestakuntza-ekintzak egin direla, ezarritako baldintza guztien arabera. Prestakuntza-ekintzak egin ez direnean, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzari jakinaraziko dio, hark hasiera eman diezaien aplikatutako zenbatekoen eta irailaren 28ko 18/2021 Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluan prestakuntza egin ez den kasurako aurreikusitako zenbatekoen arteko aldeari dagozkion zehapen-espedientei eta kuotak likidatzeko espedientei, ekintza horiek egin ez diren langile bakoitzari dagokionez.

Hala ere, enpresak egiaztatzen badu langileen esku jarri direla prestakuntza-ekintzak, ez du salbuespenen itzulketarik egin beharko langileak egin ez baditu.

### **III. KOTIZAZIOAREN ARLOKO EZOHIKO NEURRIAK: SALBUESPENAK**

**13. Oraindik ere Gizarte Segurantzatik salbuetsita al daude martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan oinarritutako ezinbesteko ABEEEak? Eta espediente horietatik ekonomia, teknika, antolaketa eta ekoizpeneko arrazoiek eragindako ABEEEtara igaro diren enpresentzat?**

2021eko azaroa baino lehen, maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren zenbatekoak aplikatzen jarraituko da.

Data horretatik aurrera, salbuetsita jarraituko dute onura horietarako eskubidea zuten aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente berberak, maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian eta eranskinean jasotakoaren arabera, hau da, honako apartatu hauetakoren batean sartuta daudenek:

a) Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan arabera ezinbestez indarrean dagoen ABEEE automatikoki luzatzen zaien enpresak, baldin eta haien jarduera maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren eranskinean aurreikusitako EJSNetako batean sailkatzen bada, indarrean jartzen den unean.

b) Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan aipatzen den ezinbesteko arrazoiek eragindako ABEEE automatikoki luzatzen zaien enpresak, haien negozioa, zeharka eta gehienbat, aurreko letretan aipatzen diren enpresen mende dutenak edo haien balio-katearen parte direnak.

c) Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluko ezinbesteko arrazoiek eragindako ABEEE batetik ekonomia, teknika, antolaketa eta ekoizpeneko arrazoiek eragindako ABEEE batera igaro diren enpresak, aurreko errege lege-dekretuetan aurreikusitako salbuespenak jasotzeko eskubidea izan dutenak, eta haien jarduera maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren eranskinean aurreikusitako EJSNetako batean sailkatuta dutenak, indarrean jartzen den unean.

d) a) letran aipatzen diren enpresak, 2021eko urriaren 1etik 2022ko otsailaren 28ra bitartean, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluko ezinbesteko arrazoiek eragindako ABEEE batetik ekonomia, teknika, antolaketa eta ekoizpeneko arrazoiek eragindako ABEEE batera igarotzen direnak.

e) Balio-kateko kide edo mendeko gisa kalifikatuak izanik, 2021eko urriaren 1etik 2022ko otsailaren 28ra bitartean, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluko ezinbesteko arrazoiek eragindako ABEEE batetik ekonomia, teknika, antolaketa eta ekoizpeneko arrazoiek eragindako ABEEE batera igarotzen diren enpresak.



**14. Eska al daiteke arau hau indarrean dagoen bitartean balio-katea osatzen duen edo zeharka mendekoa den enpresaren kalifikazioa, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen ondorioz estaldura-tasa handia eta jardueraren berreskuratze-tasa txikia duten sektoreetako enpresentzat?**

Ez. Balio-katea osatzen duten edo zeharkako mendetasuna duten enpresatzat hartuko dira soilik 2020ko urriaren 9tik 16ra bitartean aurkeztutako eskaerei erantzuteko lan-agintaritzak emandako ebazpenaren bidez halakotzat kalifikatu direnak, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren lehen xedapen gehigarriaren 2. paragrafoan aurreikusitakoa aplikatuz, betiere balio-kateko kide edo zeharkako mendekotzat jo ziren EJSN (balio-kateko kide deklaratu ziren EJSN) 11. Errege Lege Dekretuaren eranskinaren barruan mantentzen bada.

**15. Zeintzuk dira 12. galderan deskribatutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei aplikatu beharreko salbuespenen zenbatekoak?**

Kasu horietan, 2021eko azaroan eta abenduan eta 2022ko urtarrilean eta otsailean sortutako enpresa-ekarpenetik honako salbuespen-portzentaje hauek jaso ahal izango dituzte enpresek:

- a) Enpresak 10 langile edo gehiago izan baditu Gizarte Segurantzaren alta emanda 2020ko otsailaren 29an:
  1. Enpresak ez baditu prestakuntza-ekintzak egiten: ehuneko 40.
  2. Enpresak prestakuntza-ekintzak garatzen baditu: ehuneko 80.
- b) Enpresak hamar langile baino gutxiago edo haien parekoak izan baditu Gizarte Segurantzaren alta emanda 2020ko otsailaren 29an:
  1. Enpresak ez baditu prestakuntza-ekintzak egiten: ehuneko 50.
  2. Enpresak ez baditu prestakuntza-ekintzak egiten: ehuneko 80.



**16. Ba al dago betekizun gehigarrik prestakuntza-ekintzei lotutako salbuespen-ehunekoak aplikatzen dituzten enpresentzat?**

Prestakuntza-ekintzen garapenaren baldintzapeko salbuespenak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak aplikatuko ditu enpresak eskatuta, prestakuntza-ekintzaren onuradun diren langileen identifikazioa eta lanaldi-etenaldia edo -murrizketa jakinarazi ondoren. Langileei eta aldiei buruzko jakinarazpen hori erantzukizunpeko adierazpen bat izango da, enpresak prestakuntza-ekintzak egiteko duen konpromisoari buruzkoa.

Salbuespena aplikatu ahal izateko, jakinarazpen hori eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dira aitoren horiek ondorioak izango dituzten lehen kuoten sortzapen-aldiari dagokion kuoten likidazioaren kalkulua eskatu aurretik. Jakinarazpena eta erantzukizunpeko adierazpena kuoten likidazioa kalkulatzeko azken eskaeraren ondoren egiten bada, dagokion arauzko epean aurkezteko epearen barruan, salbuespen horiek ondoren aurkezten diren likidazioei soilik aplikatuko zaizkie, baina ez jada likidatutako aldiei.

**17. Zein da jarduera eragozteagatik edo jarduera normalizatua mugatzeagatik ABEEEn salbuespenen zenbatekoa?**

2021eko azaroa baino lehen, maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuaren zenbatekoak aplikatzen jarraituko da. Geroago, urritik aurrera luzatutako edo baimendutako jarduera-eragozpenengatik ABEEE baimenduta duten enpresek, jarduerak etenda dituzten langileei dagokienez, eteteak eragindako lanaldi-aldi eta -ehunekoengatik, 2021eko azarotik aurrera sortutako enpresa-ekarpenaren ehuneko 100eko salbuespena jaso ahal izango dute, itxiera-aldian eta 2022ko otsailaren 28ra arte gehienez ere.

**18. Zer prozedura erabili behar da beren jarduera ekonomikoa eragotzita edo mugatuta ikusten duten enpresek egoera horiei dagozkien Gizarte Segurantzako kuotetatik salbuesteko portzentajeak eskura ditzaten?**

Aplikatu beharreko prozedura honako hau izango da: ea enpresa jada enplegu-erregulazioko espediente baten titularra den, jarduera ezin garatzeagatik edo jardueraren garapen normalizatua mugatuta edukitzeagatik:

- a) Jarduera eragotzita mugatuta izateagatik ABEEE berri batean dauden enpresak (18/2021 Errege Lege Dekretuaren 1., 2.2 eta 2.3 artikulua): osasun-agintaritzak eskudunak agindutako murrizketak erlaxatu edo gogortu direlako gertatutako egoera-aldaketaren berri eman beharko diete eragindako zentro eta langileei, espediente onartu duen lan-agintaritzari eta langileen legezko ordezkariari.



- b) Jarduera eragotzita mugatuta izatearen ondorioz indarreko ABEEE baten titular ez diren enpresek (18/2021 Errege Lege Dekretuaren 2.1 artikulua) aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente bat izapidetu beharko dute, Langileen Estatutuaren 47.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

#### **IV. APARTEKO NEURRIAK LANGABEZIAGATIKO BABESAREN ARLOAN**

##### **19. Zein dira Enpleguaren Aldeko VI. Gizarte Akordioaren programan langileak babesteko aurreikusitako neurriak?**

Arau honetan langileak babesteko adostu eta jasotako neurriak honako hauek dira:

- ABEEEak eragindako pertsonak langabezia-prestazioa jasotzeko gabealditik salbuestea; beraz, prestazioa onartzen da, aurretik gutxieneko alta- eta kotizazio-aldirik izan gabe ere.
- Kontagailua zeroan (ikus 26. galdera).
- Oinarri arautzaileari aplikatu beharreko ehunekoa % 50etik % 70era igotzea, COVID-19aren ondoriozko ABEEE batean 180 eguneko atxikipena kontsumitu duenak jaso beharreko langabezia-prestazioa kalkulatzeko.
- Aldizkako kontratu finkoa duten edo data jakin batzuetan errepikatzen diren lan finko eta aldizkakoak egiten dituzten pertsonentzako aparteko prestazioa.
- ABEEEak eragiten dien eta lanaldi partzialeko kontratua duten pertsonen babesaren hobekuntzari eustea.
- Altaren pareko egoeran kontsideratzea langabeziagatiko prestazioen onuradun ez diren eta enpresak enpresaren ekarpena sartzera behartuta ez dituen ABEEEren eraginpeko pertsonak.
- Langabezia-prestazioen eta lanaldi partzialeko lanaren arteko bateragarritasuna.

##### **20. Ba al dago alderik ABEEEan dauden langileen langabezia-babesean, ABEEE hori zein motatakoa den kontuan hartuta (ezinbesteko arrazoiek eragindakoa, ekonomia-teknika- antolaketa-ekoizpeneko arrazoiek eragindakoa, berragertzearen ondoriozkoa, mugek edo eragozpenek eragindakoa)?**

Ez. Langileen langabezia-babesa berdina da, kontuan hartu gabe zein ABEEEtan dauden sartuta, eta 2022ko otsailaren 28ra arte luzatuko da.



**21. Zer neurri espezifiko aurreikusten dira aldizkako kontratu finkoa duten pertsonentzat edo data jakin batzuetan errepikatzen diren lan finko eta aldizkakoak egiten dituztenentzat?**

Ezohiko prestazio bat jasotzea aurreikusten da, eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 25.6 artikuluko neurriak luzatzen dira; 2022ko otsailaren 28ra arte aplikatuko dira.

**22.- Nork jaso dezake aparteko prestazioa? Bateragarria al da besteren konturako lanaldi partzialeko lanarekin?**

Aldizkako kontratu finkoa duten eta lanaldi partzialeko kontratua duten eta data jakin batzuetan errepikatzen diren lan finkoak eta aldizkakoak egiten dituzten langile hauek jaso ahal izango dute aparteko prestazioa:

1. Egoera hauetan dauden pertsonak:
  - a) 2021eko jarduera-aldi teoriko osoan edo zati batean, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan jasotako kausetan oinarritutako ABEEE batean sartuta egotea.
  - b) Egoera hauetakoren bat gertatzen denean:
    - i. Jarduera-aldia amaitu ondoren ABEEEn sartuta egoteari uzten diotenean, edo
    - ii. ABEEE batek eragindako jarduera-aldia amaitzen denean.

Kasu horretan, prestazio hori aitortzeko, enpresak aparteko prestazioen eskaera kolektiboa aurkeztu beharko du, aurreko egoeretan dauden pertsona guztiak barne hartuta.

Gainera, kasu horretan, aparteko prestazioa bateragarria izango da ABEEEn zehar besteren kontura lanaldi partzian egindako lanarekin, inolako kenkaririk gabe.

2. Azken kanpainan ABEEE baten eraginpean egon ez arren, legezko langabezia-egoeran jarduera eten zaien pertsonak, nahiz eta kotizaziopeko prestazioa jasotzeko eskubidea izan.
3. Ordaindutakoaren arabera prestazioa 2022ko otsailaren 28a baino lehen amaitzen duten pertsonak.
3. eta 3. kasuetan, aurreko ABEEE aldian besteren konturako lan bat lanaldi partzian egiteak prestazioaren zenbatekoan lan egindako denboraren zati proportzionala kentzea ekarriko du.

### **23. Zer zenbateko aurreikusten da?**

Prestazio hori hilabeteka ordainduko da, eta eragindako pertsonak jaso duen langabeziagatiko kotizaziopeko azken prestazioaren oinarri arautzaile beraren arabera kalkulatuko da, edo, hala badagokio, kotizaziopeko prestazioaren oinarri arautzailearen arabera.

Hala ere, langile horiei aitortutako aparteko prestazioaren zenbatekoa zehazteko, dagokion oinarri arautzaileari ehuneko 70eko ehuneko aplikatuko zaio 2022ko otsailaren 28ra arte.

### **24. Zenbat iraungo du? Eten daiteke?**

Ezohiko prestazio horren iraupena jarduera-kanpaina amaitu edo kotizaziopeko prestazioa agortu eta hurrengo egunetik 2022ko otsailaren 28ra artekoa izango da, eskaera epe barruan aurkezten ez bada. Kasu horretan, prestazioa eskaeraren egun berean sortuko da.

Prestazioa eten ahal izango da langilea aldi baterako bere jarduerara itzultzen denean. Kasu horretan, aparteko prestazioan langilearen baja jakinarazi behar zaio erakunde kudeatzaileari:

- Aldizkako kontratu finkoa edo lanaldi partzialeko kontratua duen enpresa bada, enpresak horren berri eman beharko du.
- Langileak bere konturako edo besteren konturako lan bat hasten badu aldizkako kontratu finkoa sinatuta duen enpresa ez den beste batean, langilea da erakunde kudeatzaileari bajaren berri eman behar diona.

Kasu guztietan, aparteko prestazioari berriz ekin ahal izango zaio langileak bere konturako lana nahi gabe utzi duela edo berriro legezko langabezia-egoeran dagoela egiaztatzen badu (betiere eskaera 2022ko otsailaren 28a baino lehen aurkezten bada).

### **25. Zer izapide eskatzen dira?**

Enpresak eskabide kolektibo bat aurkezteaz gain, hala dagokionean (ikus 22. galdera), beharrezkoa izango da eskaera Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 268. artikuluan aurreikusitako hamabost eguneko epearen barruan aurkeztea. Adierazi den bezala, epe horretan aurkezten ez bada, prestazioa eskaeraren egun berean sortuko da.

Eteteko, adierazitako izapideak egin behar dira.

### **26. “Kontagailua zeroan” mantentzen al da? Zertan datza?**

Bai. Honako kasu hauek aurreikusten dira:

1. 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen eskubide berri bat lortzen duten langileak,
  - Iraupen jakineko kontratu bat amaitzea,
  - Ekonomia, teknika, antolaketa edo ekoizpeneko arrazoiengatik kaleratzea, banakakoa edo kolektiboa.
  - Bidegabetzat jotako edozein arrazoiengatik kaleratzea.
  - Aldizkako kontratu finkoa duten langileen jarduera amaitzea edo etetea, data jakin batzuetan errepikatzen diren lan finko eta aldizkakoak egiten dituzten lanaldi partzialeko kontratua dutenak barne.

Pertsona horiei ez zaizkie kontsumitutzat hartuko COVIDaren ondoriozko ABEEEetan baliatutako langabezia-prestazioak.

2. 2020ko irailaren 30etik aurrera lana uzteagatik langabezia-prestazio bat jasotzen duten eta egunak kontsumitu behar dituzten pertsonak: COVIDaren ondoriozko ABEEEan jasotako prestazio-aldiak 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera baino ez zaizkie kontsumituko.
3. 2027ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren prestazio berriak: 2020ko urriaren 1etik aurrera COVIDaren ondoriozko ABEEEetan kontsumitutako prestazioak murrizteak ez die eragingo.

## **V. NEURRI OSAGARRIAK**

### **27. Luzatzen al dira ABEEEei aplikatu beharreko neurri osagarriak?**

*Bai, luzatu egiten dira dibidenduen banaketarekin, zerga-gardentasunarekin, enpleguaren zaintzarekin eta aparteko orduak egitearekin, kontratazio berriekin eta esternalizazioekin lotutako mugak, bai eta apirilaren 12ko 3/2021 Legearen 2. eta 5. artikulua ere.*

### **28. Enpleguari eusteko konpromisoa jasotzen duen 6 hilabeteko beste aldi bat al dago?**

Bai. Enplegua babesteari dagokionez, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 5. artikulua ondorioak irailaren 28ko 18/2021 Errege Lege Dekretuaren 5.4 artikuluan luzatzea aurreikusten da.

Beraz, babes horri aplikatu beharreko baldintzak, bai errege lege-dekretu hau indarrean jarri aurretik baliatutako salbuespenei dagokienez, bai errege lege-dekretu honetan jasotakoei dagokienez, artikulua horretan deskribatzen dira.



Aurreko horrek esan nahi du enpresek, aurreko arauetan aurreikusitakoaren arabera eskuratutako enplegu-zaintzako 6 hilabeteko edo gehiagoko aldiak bete ondoren, konpromisoa hartzen dutela, irailaren 28ko 18/2021 Errege Lege Dekretuari jarraiki, enplegua beste 6 hilabeteko beste aldi batean mantentzeko; epe hori zenbatzen hasiko da aurrekoak oso-osorik amaitu ondoren.

## **VI. PALMAKO SUMENDIAREN ERUPZIOAK ERAGINDAKO ENPRESENTZAKO NEURRIAK**

### **29. Zer neurri aurreikusten dira Cumbre Viejako sumendiaren erupzioak eragindako enpresentzat? Zer baldintza bete behar dira?**

Cumbre Viejako sumendiaren erupzioak eragindako enpresek, Kanarietako Autonomia Erkidegoko probintzietan dagozkien kotizazioko kontu-kodeak dituzten lantokiei dagokienez, jarduera normalizatua ikusi edo mugatu badute eta aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente bat baimentzen bazaie Langileen Estatutuaren 47.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, arrazoi horren ondorioz, 2021eko Errege Lege Dekretuaren 28. artikuluan aurreikusitako aparteko onurak jasotzeko eskubidea izango dute.

Espediente horiei dagokienez, lan-agintaritzak ebazpena eman beharko du bost eguneko epean, eta aukerakoa izango da txostena eskatzea Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzari. Ebazpen espresurik ez badago, eskaera baietsitatzat joko da.

Espediente horiek ezinbesteko kasua eragin duen gertakariaren datatik aurrera izango dituzte ondorioak, eta 2022ko otsailaren 28ra arte egongo dira indarrean, eta beren jarduerari egiten dioten afektazioa eragozpenaren eta mugaren artean aldatzen den heinean igaro ahal izango dira, irailaren 28ko 18/2021 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako prozedurarekin bat etorriz (ikus 18. galdera).

1. paragrafoan deskribatutako salbuespenezko egoera 2022ko otsailaren 28tik aurrera luzatzen bada, Gobernuak behar diren jarduerak egingo ditu xedapen gehigarri honetan jasotako neurrien indarraldia luzatu dadin egoera horrek irauten duen bitartean.

### **30. Zer kotizazio-neurri aplikatuko zaizkie Cumbre Viejako sumendiaren erupzioari lotutako ABEEei?**

Enpresek, dagozkien lantokietan, beren jarduerak etenda edo murriztuta dituzten langileei dagokienez, 2021eko irailetik 2022ko otsailera bitarteko hilabeteetarako salbuespen-portzentajeen eteteak eragindako lanaldi-aldi eta -portzentajeak baliatu ahal izango dituzte, jarraian adierazten diren kasuetan:



a) Jarduera garatzeko eragozpenaren ondoriozko ABEEEak itxiera-aldian eta 2022ko otsailaren 28ra arte sortutako enpresa-ekarpenaren ehuneko 100eko salbuespena jaso ahal izango dute.

b) Jardueraren mugak direla-eta, ABEEEk eragindako aldian eta 2022ko otsailaren 28ra arte sortutako enpresa-ekarpenaren ehuneko 90eko salbuespena jaso ahal izango dute.

Xedapen honetan aipatzen diren salbuespenak aplikatuko zaizkio Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 273.2 artikuluan aurreikusitako enpresa-ekarpenaren ordainketari, bai eta baterako diru-bilketaren kontzeptuengatikoko kuotei buruzkoaren ordainketari ere.

Xedapen gehigarri honetan aipatzen diren kuota-salbuespenak aplikatzeko prozedura eta baldintzak irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoak izango dira.

ABEEE horietarako aurreikusitako kotizazio-salbuespenak bateraezinak dira egoera pandemikoari lotutako ABEEEetarako irailaren 28ko 18/2021 Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoekin.

### ***31. Langabeziagatiko babesaren arloan, zein aparteko neurri aplikatuko zaizkie Cumbre Viejako sumendiaren erupzioari lotutako ABEEEei?***

Xedapen honetan aurreikusitako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpeko langileek, halaber, irailaren 28ko 18/2021 Errege Lege Dekretuan aurreikusitako neurriak baliatuko dituzte.

Gainera, aparteko zirkunstantzia horien ondorio berehalakoa den kontribuzio-mailako langabezia-prestazioa jasotzen emandako denbora ez da zenbatuko ezarritako gehieneko aldiak kontsumitzeari dagokionez. Ondorioz, ABEEE horiek eragindako pertsonei kontagailua zeroan jartzea ez dago lan-harremana amaitzeko arrazoiaren mende.